

Xabier Olaso. *Pupuan trapua. Pamiela*

Katakume zuria

Katakume zuria
elurra baino zuriago,
zingulu-zangulu,
teilatu gorriaren gainean dago.

Katakume zuria
elurra baino zuriago,
hurrup eta klik
ikimilikiliklik
pattarrari zurrut egin dio.

Katakume zuria
elurra baino zuriago,
zorro-zorro-zorro,
tximiniaren ondoan lo.

Katakume zuria
elurra baino zuriago,
pinpulun-panpulun,
tximinitik behera jausi da,
a zer burukada!
Demonio!
Arraio!

Katakume zuria
elurra baino zuriago
Orain,
kedarra baino beltzago.

*Istoriotoxo bat kontatzen digu poema honek, buruz ikasi eta norbaiti kontatzeko.
Etxean festa batean? Eskolan txikien gelan antzeztuz?

Opariak elkarri

Matxinsaltoak eta pinpilinpauxak
mendian ezagutu zuten elkar,
matxinsaltoak pinpilinpauxari
zerbait eman nahi zion opari;
zer emango eta zer emango
bere izenaren erdia,
geroztik pinpilinpauxa
deitzen da pinpilinsalto.

Txantxangorriak eta gardantxiloak
zuhaitzean ezagutu zuten elkar,
gardantxiloak txantxangorriari
zerbait eman nahi zion opari;
zer emango eta zer emango
bere izenaren erdia,
geroztik txantxangorria
deitzen da txantxantxiloa.

Txilinloreak eta jazminak
lorategian ezagutu zuten elkar;
jazminak txilinloreari zerbait eman nahi zion opari;
zer emango eta zer emango
bere izenaren erdia,
geroztik txilinlorea
deitzen da txilinmina.

* Jolas bat planteatzen du poemak, errepikatzeko erraza.

Poemaren zatiak errepikatzen dira eta izenen jokia errepikatzen da behin eta berriz.
Hau izan daiteke aitzakia gelako haurren izenak erabiliz poema berriak egiteko.

Ainhoaren pijama

Ttiriki-ttarraka
Anbotoko dama,
goruetan dabil
Ainhoaren pijama.

Ttiriki-ttarraka
goruaren hotsa,
pilpiri-palpara
damaren bihotza.

Ttiriki-ttarraka
kobazuloan,
kandela pizturik
gau ilunean.

Ttiriki-ttarraka
albait arinen,
pijama egin behar
argitu baino lehen.

*Ametsak amets Anbotoko damak goruan egiten du Ainhoaren pijama, Ainhoak amets hori egiten du...
Errezitatzen ikasi eta besteei adierazi.